

**TOLOSAKO PARTE HARTZEAREN
FORMAZIOARAKO LAN SAIOAK (2009ko
abendua):
ARAUDIAREN INGURUKO HAUSNARKETA**

Elisabet Arrieta Aranguren
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-
EHU)
2009ko abendua

SARRERA

Jarraian plazaratzen den txosten honek Tolosako Udalak Parte Hartzearen inguruan 2009ko azaroaren 25ean eta abenduaren 1ean eta 2an antolatutako hiru saio teorikoak aurkeztea du helburu.

Hiru saio hauen bete behar nagusiak Parte Hartzearen inguruan eta interesa duten Tolosarrei informazio gehiago eskaintzearekin zerikusia du. Bada besterik ordea, alegia, edukiak, hausnarketak eta estatu mailan garatu diren edo garatzen ari diren esperientzia ezberdinak aurkeztea.

Dena den, lehen lerro hauetan esan denak beste erronka nagusi batera garamatza: Tolosan, herritarrek eta Udalak beharrezkoa dute Herritarren Partaidetzarako Tolosako Udal Kontseiluaren Erregelamendua.

Dagoeneko, Araudi honen zirriborroak egin du ibilbide jakineko bat; baina garatu diren saioetan ikusi den bezala, honen inguruan garrantzi handiko gaiak azaldu dira, hau da, diseinuak, edukiak, ibilbideak eta borondateak adostearekin zerikusia dutenak.

Txosten honetako lehen kapituluak garatu diren hiru saioen aipamen labur bat egingo da.

Bigarrenean, aldiz, abenduaren 2an egindako saio bukaeran bertara gerturatu ziren tolosarrek idatziz emandako Araudiaren inguruko iritzi bilduma aurkezten da.

Hirugarren atalean, ordea, hiru saio hauek burutu aurretik herritarrek egindako proposamenak azalduko dira, non Araudiaren lehenagoko urratsak aipatzen diren.

2. eta 3. atalotan aurkeztutako edukiekin zera ikus dezakegu: Tolosa Udalerriko parte hartzearen inguruan edozein motatako erabakirik hartu aurretik hausnarketa behar den eszena-leku batean aurkitzen da.

Laugarren eta azken kapituluan, bestalde, hausnarketa eta iradokizun batzuk aurkezten dira, Tolosako parte hartzearen sustapenean eta garapenean aurrera egiteko adostasunean oinarritutakoak.

1.- HIRU SAIOEN AUKEZPENA: PARTE HARTZEA ETA GIPUZKOA ETA EUSKADIKO ESPERIENTZIAK, LAS CABEZAS DE SAN JUAN (SEVILLA) ETA Y RUBÍ (KATALUNIA).

Lehen saioan, honako azalpena egin zen: *parte hartzearen* inguruko edukien aurkezpena eta *Gipuzkoa eta Euskadiko esperientzia*; hizlaria Elisabet Arrieta izan zen, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV-EHU) irakaslea dena. Saioaren helburua bertara etorritako herritar guztiei eduki amankomun batzuk eskaintzea izan zen elkarrekin hausnarketa bateratu bat egin ahal izateko. Aldi berean, gure lurraldean parte hartzearekin zerikusirik izan diren edota egun dituzten zenbait esperientzia ezagutarazi ziren.

Bigarren saioan, Javier Encinasek eta Ma Angeles Ávilak jardun zuten. Beraiek Sevillako parte hartze proiektuetan aritzen diren profesionalak dira eta bi esperientzia zuzen ekarri zituzten: *El reparto* (Las Cabezas de San Juan, Sevillan garatua) eta *El Palomo* (Palomares del Rio, Sevillakoa). Lehena, Aurrekontu Partehartzaileekin zerikusia duena; eta bigarrena, Hirigintza Antolaketako Plan Orokorrearekin erlazioa duena.

Bukatzeko, hirugarren eta azken saioko hizlaria Antoni Merino izan zen, Rubi (Katalunia) herriko Udal kudeatzailea. Berak *politika publikoko kalitatearen gehikuntza, herritarren inplikazioaren eskutik* izan zuen hausnarketa gai.

2.- HIRUGARREN SAIOAN PARTE HARTU ZUTENEK EMANDAKO IRITZIAK, HERRITARREN PARTAIDETZARAKO TOLOSAKO UDAL KONTSEILUAREN ERREGELAMENDUA.

Gogoan eduki behar dugu hiru saioetan zenbaitek zalantzan jarri zutela Udal Kontseiluaren Erregelamendua bera. Horretarako, bi argudio erabili ziren: alde batetik, araudia bera egiteko era ez egokia, hau da, bere parte-hartzearen ibilbide eskasa; eta bestetik, Erreglamendu bera, parte hartzea sustatzea murriz baitezake.

Hala ere, hausnarketa hauek edozein direla ere, hamahiru herritarrek euren iritzia eman zituzten, jarraian hitzez hitz aurkezten ditugunak:

1.- Arautegiak kontuan eduki beharko lituzkeen bitartekoak eta jaso beharko liratekeen ezinbesteko aipamenak:

- *"Ezinbestekotzat jotzen dut atariko bat, non engainurik gabe adieraziko den zein gizarte parte-hartzeren eredu ezarri nahi den.*
- *"Araudi bat prestatzeko unea ez da; lehenik Parte Hartzea nola ulertzen dugun ikusi eta gero "adostasun" eta "jokuen arauak" finkatu eta adostu, Parte hartzea oso modu ezberdinean ulertu daitekeelako".*
- *"Parte-hartzearen mugak ezarri".*
- *"Parte-hartzearen aniztasuna bermatu: beti berdina parte hartu dezatela saihestu.*
- *"Parte hartzeko espazio birtualak sortu: sinkronoak eta asinkronoak!!*
- *"Bizkortasuna sortu estrategia eta apustuarekin".*
- *"Arriskuak onartu".*
- *"Araudiak bere eboluzioa eta malgutasuna onartu beharko luke ahal den hiritar gehienek errespetatu dezaten"*
- *"Banakako hiritarrak dinamizatu".*
- *"Aniztasuna sustatu".*
- *"Prozesuaren atal guztietako komunikazioa, egokiak diren medio eta ildotik"*

- *"Ordezkaritzak anitza izan behar du eta aldi berean eragile guztiena, banako hiritarrak barne direla"*
- *"Zeintzuk diren erronkak eta lan mekanismoak. Jendeak jakin behar du zertara doan eta zein den bere bete beharra, arauak garbi egon behar dute hasieratik"*
- *"Objetibotasun eta gardentasuna"*
- *"Garbi eta modu garden batean komunikatu"*
- *"Araudiaren hasera eta idazketa ibilbide parte hartzaile baten ondorioa izan beharko luke. Ekarpen batzuk jaso dira baina gehiago behar dira eta egindakoak hausnartu beharko lirateke eta ez aurkeztutakoen arrazoiak ere bai". Ezin daiteke soilik hartutako erabakiak komunikatu. Araudiak politikarien konpromisoa bere gain hartu beharko luke".*
- *"Ezinbestekoa da Araudia aldatzeko aukera izatea".*
- *"Prozesu parte hartzailea irekitzea beharrezkoa da Araudia ezartzeko orduan".*
- *"Epe motz batean helburu bat edo gehiago ezarri beharko lirateke plan estrategiko garbi eta labur bat bere baitan garatzeko".*
- *"Beti eta atal bakoitzean irekia dagoen prozesu bat eraiki, deialdi bakoitzean bere aldeko jarrerak sustatu daitezten".*
- *"Aldeen arteko lotura iraunkorra (feed-back) sustatzailea den erakundeak (Udala) bultzatuta".*
- *"Arau hitza ez dut gogoko".*
- *"Ideia ireki eta aurrerakoiak".*
- *"Denboran egindako kudeaketa hobea dela pentsatzen dut"*
- *"Gizarte egitura, datuak eta gaur eguneko parte hartze moduak. Datuak".*
- *Parte Hartze eredu erraz bat ezarri"*
- *"Azken teknologia, web eta gizarte sareak erabili".*
- *"Datuak eta informazioa eskuratzeko gaitasuna izan".*
- *"Ondorioak nor bereak balira bezala sentitu"*

2.- Araudian agertu behar ez luketen elementuen inguruan.

- *"Gauza asko egon eta argia beharko lukeela pentsatzen dut. Sobran*

balego kendu edo aldatu"

- *"Parte hartzea lan tresna bezala ez dadila gai batzuetatik at gelditu: gai guztiak izan daitezela eztabaidagarri nahiz eta ez beti burutu".*
- *"Irizpide, ekintzak alderdikeriak sortzen dituztenak"*
- *"Erakundearen lidergotzak ez ditu jarraibideak adierazi behar"*
- *"Politikaren ikuspegi gehiegizkoa. Politika gutxiago eta herritarrak parte hartzea handiago".*
- *"Ez luke baztertzailea izan behar". Araudia tresna bat da baina beste batzuk bultzatu behar dira prozesu eta sentsibiltate ezberdinak garatu ahal izateko".*
- *"Anitza eta aldaketarako aukerak eskaintzen dituen"*
- *"Kanpoan gelditu beharko lirateke aldaketak debekatzen dituen aipamenak eta parte hartzeari mugak ezartzeko aukera".*
- *"Kontseilua eraikitzeke orduan pisu politikoak garrantzi gehiegi ez dezala izan ibilbidea parte hartzaileen artean garatu dadin.*

3.- Iradokizunak.

- *"Politikak duen garrantziari balorea eman"*
- *"Aurkeztu diren teoriak, praktikak eta esperientziak interesgarriak eta aldekoak izan dira, baina hiru egunetan ez da aipatu parte hartzailea den prozesu bat Araudiaren proposamen batekin hasi daitekeenik. Zergatik ez gara abiatzen parte hartzearen inguruan gure arteko akordio lortuz, jakina, egun hauetan ikasi duguna eta gure esperientzia kontutan izanik?".*
- *"Parte hartzea suspertzeko motibazioa sortu dezaketen elementuak aurkitu: fidelizazioa bilatu".*
- *"Prozesuak ez oztopatzeko neurriak hartzea komeni da".*
- *"Gogoratu beharko genuke herritarrengana nola iritsi, batez ere, ustez, parte hartze ez dutenengana".*
- *"Informazioa. Informazioa".*
- *"Politikari eta udal teknikariek garrantzizko formazioa behar dute. Bultzatzeko Udalak teknikari espezialista bat behar du etengabeko dinamizaziorako".*
- *"Pareko egoera bizi izan duten herri eta hirien kasua aztertu beharko*

litzateke, bertatik ikasteko aukera izango delako”.

- *“Erabakiak hartzeko ahalmenik ez duten prozesu parte hartzaileek ez dute etorkizunik nire ustez”.*
- *“Gai hauetan interesa duten pertsonak elkartu beharko lirateke, entzun eta hitz egiteko”.*
- *“Gure artean konektatzeko ona litzateke elkar hitz egitea”.*
- *“Elkar aberasten garela konturatzen bagara, posiblea da gehiengo batentzat onargarriak diren konponbideak topatzea”.*
- *“Teorian dioguna zehaztea lortu”.*
- *“Egindako asko edo gutxiak oihartzun gardena eta zehatza izan dezala”.*
- *“Nahi dena argi izan, ilusioa eta zerbait lortu”.*

Herritarren Partaidetzarako Tolosako Udal Kontseiluaren Erregelamendua.

3.- HERRITARREN PARTAIDETZARAKO TOLOSAKO UDAL KONTSEILUAREN ERREGELAMENDUAREN AURRETIK EGINDAKO PROPOSAMENAK.

1.- *“Aintzat hartzen da Tolosako Udalak herritarrek udal kudeaketarekin zerikusirik dituzten gaietan parte hartzeko duten eskubidea azaldu izana, tolosarren inplikazio handiagoa eta udal kudeaketa demokratikoagoa lortze aldera. Horregatik, erabaki politiko zuzena da Tolosako Udalak hiritarren parte-hartzearen esanahia eta garrantzia zehaztu eta bideratu nahi izana, demokrazia-partaidetzaren garatzea lagunduko baitu. Hori dela eta, erakundeen ardura da euren gizartearen komunitate zentzua lideratzea, biltzea eta zehaztea erronka sozial eta politiko handien inguruan; horretarako, herritarren parte hartzea oinarrizko lanabesa da.”*

2.- *“Beraz, egokia da Tolosako gune eta mekanismo parte-hartzaileak antolatu, egituratu eta planifikatzea, baina batzuetan gune horien alde aurreko antolaketak freskotasuna galtzeko arriskua indartzen du eta propioak diren dinamika, ideia eta proiektu berrien sorkuntza galarazten du”.*

3.- *"Planteatzen dena parte hartzearen inguruan presta daitekeen Udal Araudia suspertzen duen praktika da parte-hartzailea berak araudia eraikitzea, eta ez, ordea, praktika beraren aurretik."*

4.- *"Udal Kontseiluaren baitan alderdi politikoei eskaintzen zaien pisu gehiegizkoa da. Modu berean, bere lehendakariak duen eskubidea, alegia, kasuak kasu aukeraketa bat egiteko orduan".*

5.-*"Kontseilua antolatzeko orduan eta kideak aukeratzekoan, komenigarria da Alkatearen azken eskubidea aztertzea. Ezaugarri hauek dituen Kontseilu batean Alkateak ez luke bozka erabakigarria izan behar".*

6.-*"Tolosako herritarren presentzia eskasa Kontseiluan (gehienez 5 pertsona/erakunde). Ezin daiteke Kontseiluko kideen erdia alderdi politikoen ordezkarietz osatzea; hauetako norbaitek huts eginez gero, udal ordezkaria duten alderdi politikoei gehiengoa izango lukete".*

7.- *"Herritarrek parte hartzeko Udal Kontseiluan hamar kide izan ditzatela, esku hartzeko borondatea adierazi dutenak."*

8.- *"Araudia elementu mugatzaile bezala bizi da eta honek mugatu eta eragozten du parte-hartzearen praktika".*

9.- *"Dena dela ere azken formula, beharrezkoa da parte hartzearen mekanismoaren dinamizazio eta lan egiteko moduan sakontzea, arrazoiak azaltzeko amaigabeko bilerak saihestuz, taldeen ideia eta proposamen sormen eskasak baititu."*

10.- *"Informazioarekiko eskubidea eta udal informaziorako ildoan garapena".*

11.- *"Parte hartzearen inguruko udal antolaketa eta sustapena".*

12.- *"Gizarte zibilaren eta elkartearen indartzea".*

13.- "Parte hartzeko antolaketa: Tolosako Parte hartzeko Udal Kontseilua planteatu daiteke, baina lehen bileretan Araudiaren edukiak kontrastatu beharko lirateke parte hartuko duten kideekin "berea egin dezaten".

14.- "Gutxiengo baten parte hartzearen onarpena gaiez gaiko kasuetan, baina baldintzak sortuz herritarrek ibilbidean nahi dutenean txertatzeko".

15.- "Parte-hartze esanahitsua izan daiteke herritarrek gai garrantzitsuetan beraien iritzia esanguratsua dela konturatzen direnean. Kasu hauetan erakundeen politikek parte-hartzea suspertu beharko lukete batez ere gai aipagarrietan, eta horrela urtean behin edo bitan gizartea bozkara deitu komunitaterako garrantzia duen gairen bat aztergai delarik".

16.- "Irizpide metodologikoen garapena, kontutan izan beharko luketena: legedia eta parte-hartzearen inguruan herritarren kompetentzien argibideak, parte-hartzeko metodoen diseinua, protokolo tekniko eta politikoak eguneroko parte-hartzea gauzatu dezaten, gai estrategikoen inguruan kontsultak egiteko konpromiso politikoak, kontsulta zuzenak egiteko eredu argibideak, web demokrazia eta parte hartzearen dinamizazio zeharkakoa suspertzeko baliabideak".

17.- "Kontseiluak kontsultarako bakarrik balio dezake eta horrela balioa galtzen du. Erabakiak hartzeko aukerarik ez balu, komeniko litzateke hartutako erabakiak hedatzeko baliabideak garatzea. Aurrekontu propioa izatea komeniko litzateke komunikabide lanak bermatzeko, eta Kontseiluak kudeatu beharko lituzke parte hartzearen teknikariaren eskutik".

18.- "Kontseiluaren inguruko konpromiso bat alderdi politikoen ordezkariak hedatzea".

19.- "Kontseilua Alkatetzaren menpe egon dadila zuzenean".

20.- "Ordezkaritza lantzearen garrantzia (elkarreana eta banakokoena) Kontseiluko kideen kasuan bakoitzean eta ikuspegi eta begirada guztiak ordezkatuak egon daitezela".

21.- "Urteko parte hartzearen Gai-zerrendaren antolaketa, Udalaren ingurugiro eta Parte Hartzearen laguntzarekin"-

22.- "Lanerako mahai bat osatu Agenda XXI Tolosa 2015 esparruan, parte hartzeari heltzeko, horretaz hitz egiteko, aztertu eta sakontzeko; hori guztia garatzeko behar diren baliabide guztiez: teknikoak, aurrekontua, informazio baliakizunak, beste esperientzien testigantzak. Aldi berean, erakusgarria izan behar da, ahalik eta elkarte gehien parte hartuz."

23.- "Sentsibilizazio kanpaina lan-mahaia sustatzeko, ahal den Tolosako herritar gehienekin".

24.- "Udalerrian parte hartzea garatzeko proposamen ezberdinen lanketa (gaiak aztertzeko mahaiak, udal batzordeak...)

25.- "Adostutako proposamena; eta hala ez balitz, egindako proposamenak idatziz beharko lukete eta hauei Udal Kontseiluak egindakoa erantsi. Zenbait tokitan lanean hasten dira, eta geroago bere funtzionamendua arautuko da sortutako dinamikaz, pertsonen eta partaideez baliatuz.

26.- "Informazioaren eta jasotako proposamenen zabalkundea, Jardunaldi Ireki batzuetan Tolosako herritarrek ezagutu ditzaten".

27.-"Zuzenen eta egokienak diren proposamenen erabakia herritarrei egindako kontsulta lotesleaz".

4.- AZKEN HAUSNARKETA ETA IRADOKIZUN BATZUK.

Lehenik eta behin, gogoan izan behar dugu positiboki baloratu dela Tolosako Udalak herritarrek udal kudeaketarekin zerikusirik dituzten gaietan parte hartzeko duten eskubidea azaldu izana. Baina haratago joan behar da. Izan ere, atalburu honetan gogoeta batzuk nabarmendu nahi dira

herritarren parte-hartzeari buruzko hausnarketa egiteko, etorkizunean berme guztiez hartuko diren neurriak izan daitezen, aztertuak eta aintzakotzat hartuak. Beraz, kapitulu honen edukiek adostasunez eta elkarrizketaren bidez aurrera egin nahi dute, Tolosako Gizartearen Parte Hartzearen garapena eta sustapena lortze aldera.

Hortaz, 2. eta 3. ataletan jasotako proposamenak berraztertu ondoren, antzeko hausnarketak hautematen ditugu emandako iritzietan. Jarraian, beraien iruzkinak azalduko dira.

Herritarren parte-hartze eredu bat beharrezkoa dela onartzen da, eta berau erregelamendua egin aurretik zehaztu beharko litzateke, adostasunean oinarritua, helburu jakin batzuekin, arau garden eta muga jakin batzuekin. Aldi berean, aipatutako jarraibideak aniztasuna bermatu beharko luke, eta herritar banakakoak eta elkarteak dinamizatzeko. Horretarako, eredu horrek lan ildo eta mekanismoak finkatu behar ditu, ilusio sortzaile, bitala eta erabakiak hartzeko orduan arriskuak onartzen dituenak.

Aipaturiko beste elementua komunikazioa da, prozesuen ibilbidean garrantzitsua dena. Horretarako baliabide aproposak erabili behar dira modu garbi eta garden batean, denen arteko etengabeko harremana bermatuz, datu eta informazioarekin, beti irekia eta aldagarria den ibilbidea bultzatuz, teknologia berriak erabiltzen dituenak, edozein gai aztertzeko prest eta prozesu erraza finkatuz, non ondorioak, denek beraienak balira bezala onartzen dituzten.

Maiz agertzen den beste elementu bat politikaren presentzia dugu. Parte-hartzea garatzea esaten da eta, aldi berean, alderdien esparrutik at gelditu beharko litzatekeela aipatzen da; erakundearen lidergotzarekin, baina jarraibideak nagusitu gabe eta herritarren presentzia handiagoaz, formazio eta informazio gehiagoren eskutik.

Gainera, Komentatu da udal antolaketa beharrezkoa dela, garrantzitsua hausnarketa hauetan. Era berean, gizarte zibilaren parte hartzea eta sendotzea oso garrantzitsua da. Honek konpromiso politikoak dakartza eta,

aldi berean, honako behar ditu: batetik, irizpide metodologikoak, estrategikoak, legegileak, herritarrei dagozkien konpetentzien argibideak, udal protokoloak, web demokraziaren sustapena, kontsulta zuzena egiteko ereduak. Bestetik, giza baliabideak eta ekonomikoak. Hauek guzti hauek parte hartzearen zerbitzurako.

Orain arte Tolosako herritarren adostutako iritziez aritu gara, baina argi dago badirela bestelako hausnarketa, hots, *ezberdintasunak*. Hauek kontutan izan behar dira, bereziki Herritarren Partaidetzarako Tolosako Udal Kontseiluaren Erregelamenduari eragiten diote eta.

Alde batetik, aipaturiko Erregelamendua martxan jarri nahi ez dutenak daude; tolosar hauek pentsatzen dute Araudia ibilbide parte-hartzaile baten ondorioa izan beharko lukeela eta une honetan ekarpen gehiago ongi etorriko lirakeela. Bestalde, aipatzen dute horrelako araudi batek mugak ezarri ditzakeela.

Baina, bestalde, bada bestelakorik, eta Tolosako herritarrek ere zera diote, Erregelamendua posiblea dela orain, baina egindako azalpen eta iradokizunak kontutan izan beharko lirakeela. Aipagarria da, ildo honetan, Araudia aldagarria izatearen eskaera, onartu dadila duen garrantzia. Horretarako, zuzenean Alkatearen mende egotea gomendatzen dute. Lan tresnatzat izatea, anitza, sentsibiltate ezberdinetara gerturatu daitekeena. Izan ere, bereziki auzian jartzen dena Kontseiluaren garrantzi politikoa da, gehiegizkotzat jotzen baita, eta hori berrikustea eskatzen da.

Hari honi helduz, alderdi politikoek Kontseiluan izan dezaketen garrantzia handiegia dela aipatzen da; eta, bereziki, bere lehendakariaren ahalmen erabakigarria gehizkotzat jotzen dute.

Ildo beretik jarraituz, aipatzen da Tolosako herritarren presentzia eskasa izan daitekeela Kontseiluan. Hori dela eta, hiru proposamen egiten dira: lehena, hamar herritar izatea bertako kide eta ez bost; bigarrena, ikuspegi guztiak ordezkatuak izatea; eta, azkenik, kontsultarako baino gehiagorako balio dezala Kontseiluak.

Beraz, eta Txosten honetako edukiak amaitzeko asmoz, garrantzitsuak diren zenbait ohar kontutan izan nahiko genituzke:

- Kontutan izan eta ezagutzera eman Tolosako Udalak egin eta egiten dituen ekimen parte hartzaile guztiak, errealitatean oinarritutako kapitala direlako eta ez asmo eta amets hutsak. Modu honetan, udalerrian praktika parte-hartzaileak burutzen direla ikusiko da, Udalak propio garatzen dituenak, zenbait proiektutan ikusi daitekeen bezala.
- Tolosako Udalak parte-hartzearen inguruko osoko proposamen bat eraikitzea garatzen diren ekimenekin, politika integral eta orokor bezala ulertu dadin herrian, zatiketak gaindituz.
- Parte-hartzea sustatzeko udal antolaketa bat garatu eta bertatik zintzilikatu herri mailan egiten diren ekimenak.
- Komunikazio prozesu baten diseinu, sustapen eta hastapena garatu, parte hartzearen dinamika herrian ezagutzera emateko. Horrela, batetik, Udalak herritarrekin eguneroko harremana suspertu eta ohizkoa mantendu lezake; bestetik, suspertu behar diren proiektuen berri herritarrei eman. Hori guztia proiektuak banaka-banaka balora daitezten.
- Parte hartzearen diseinu metodologikoa: irizpide ezberdinak sortu eta ibilbide aproposak eraiki esparru anitzetan, azken finean parte-hartzearen inguruan erantzun egoki bat emateko.
- Emandako iritzien arabera berraztertze eta erabakiak hartzeko unea Tolosako Udal Kontseiluaren Erregelamenduaren inguruan, aldeko eta aurkako azalpenak. Pisu politiko eta herritarraren azterketa etorkizuneko Kontseiluan.
- Dinamika parte-hartzaileak eraiki eta gai honen inguruko formazioa indartu udalerrian, talde, elkarte eta banakako pertsoneri zuzendua.
- Aniztasuna bermatu eta dibertsitate sustatu egiten diren ekimen parte hartzaile guztietan.